

2014/10/28an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 28/10/2014.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta Oregui
Jose Angel Petralanda Gil
Rosario Arcarazo Arcarazo
María Purificación Regidor Varela
Juan Luis Merino Sanabria
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2014ko urriaren 28an, arratsaldeko sei eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaietarako hitz egiteko. Ez da etorri Landa andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 28 de octubre de 2014, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Beinat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste la Sra. Landa.

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2014/05/27 eta 2014/06/24.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2014ko urriaren 23ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berriaz eman da 13., 14., eta 15. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

3.- DEIALDIKO GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hauek sartzea:

- Zinegotzi hautetsiek karguari uko egitearen berri izatea.
- Eskoriatzako Udalaren administrazio elektronikoaren zenbait alderdi arautzen dituen ordenantza hasiera batean onartzea.
- Alkatearen dedikazio portzentajea aldatzea.
- Zinegotzi karguan aritzeko dedikazio partziala onartzea.

4.- 2015EKO ORDENANTZA FISKALAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.

Alkateak labur azaldu du 2015eko ordenantza fiskalei buruz Ogasun batzordeak egiten duen proposamena.

Guztiak jakinaren gainean geldituta, ondorengoek hitz egin dute:

Merino jaunak esan du Udalak jasan beharko duen Ur Kontsortzioaren igoera zerbitzuaren erabiltzaileari ez jasanaraztea ez zaiola zuzena iruditzen ingurumenaren ikuspuntutik, izan ere, herritarrari "ireki txorota, guk ordainduko dugu-eta" esatea bezalako baita, eta ondoren, honako hau ere esan du: Eskoriatzako Ezker Anitza-IUK gogorarazi nahi du gure ikurra ez dela inoiz izan irizpide elektoralistei begirako zergak nork gehien jaitsi edo zergak bere horretan nork utzi lasterketan parte hartzea. Aitzitik, gure mezua beti izan da, eta da, zergek ondo kudeatutako sektore publikoaren nahikotasuna bermatu behar dutela politika aktiboak egin eta gizartea aldatzen laguntzeko zerbitzu publikoak murriztu edo horien kalitatea jaitsi gabe. Iaz IUK zergak ez igotzearen alde bozkatu bazuen ere, horren arrazoia izanik 2008tik jasaten ari garen krisia eta, batez ere, gure herrian gizarte aldetik zein ekonomikotik bete betean eragin zuen aparteko gertaera bat: Fagor etxetresnak enpresaren porrota, ezin baitzen jakin horrek zer nolako ondorioak izan behar zituen familietan. Hori izan zen arrazoia. Uste dugu, 2015erako ez dugula populismorik egin behar, eta gure herrian herritarrok eskatzen ditugun zerbitzu publikoak bermatu behar ditugula, eta beraz, herritarren gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan izanik, zentzuzko igoera egin beharko litzatekeela, betiere, hobariak eta salbuespenak bermatuz udal zerga betebeharrei aurre egin ezin dieten familia eta herritarrei.

Cantero jauna: abstenitu egingo naiz. Uste dut proposamena zentzuzkoa eta orekatua dela, baina, bada abstentzioaren alde egitera garamatzan partida bat: urarena. Uste dugu urarentzat

proposatzen den igoera gehiegizkoa dela eskoriatzarren beharretarako, eta gainera, kontuan izanik ekonomikoki sektore ahulenetako bati eragiten diola. Ez gara sartuko ordenantza hauek elektoralistak diren edo ez baloratzera, uste dut izan daitezkeela, hauteskunde aurreko urtean baikaude.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da. Merino jaunak aurka bozkatuta, Cantero jauna eta Regidor andrea abstenituta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek (6) alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2015eko ordenantzei buruz Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena hasiera batean onartzea (I eranskin gisa doa).

Bigarrena.- Hartutako erabakiak jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

Hirugarrena.- Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

5.- TAXI ZERBITZURAKO TARIFA PROPOSAMENA.

2015erako 2014ko tarifekin jarraitzea proposatu du AGITAX elkarteak.

Proposamen hori egiteko emandako arrazoiak ikusita, eta Ogasun batzorde informatzailearen proposamenaren arabera, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Udal honek onartutako azken tarifa mantentzea 2015. urtean.

6.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratura egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko, denak ere 2012 eta 2013ko zerga aldietakoak, diru bilketa zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Ogasun batzorde informatzailearen diktamena IKUSI DA.

Diktamena botoetara jarrita, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2012ko eta 2013ko ekitaldiei dagozkien eta kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedienteak onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, subjektu pasiboetara eta diru kopuruengatik:

(*)KONTZEP/EPEA/ZKIA	ZENBATEKOA (€)	ZERGADUNA	ZERGATIA
090/2013.01/235	272,04	UGARTE ECHEVARRIA JOSE MARI	KITAPENA BERRIRO EGITEN DA
090//2013.01/241	272,04	UGARTE ECHEVARRIA JUAN ANTONIO	KITAPENA BERRIRO EGITEN DA
003./2012.02/1449	146,91	PAVO PAJUELO ANTONIO	ERREZIBOA ORDEZKATU ZEN (IRAKURKETA OKERRA)
003./2012.02/1449 COSTAS	4,68	PAVO PAJUELO ANTONIO	ERREZIBOA ORDEZKATU ZEN (IRAKURKETA OKERRA)

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza eta Diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuegatik preskribatuztat edo baliogabetuztat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

7.- UDALBILTZARAKO DIRU LAGUNTZA.

Berlaratutako guztiek ezagutzen dute Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak egindako proposamena.

2014ko urriaren 20an berak egindako txostenaren berri eman du idazkariak. Bertan ohartarazten du Estatuko Administrazio Orokorrek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri duela Udalaren 2014ko aurrekontuen aurka, partida izenduna jasotzen delako Udalbiltzari diru laguntza emateko. Era beran, sinatzeko proposaturako hitzarmenaren edukia zalantzan jartzen du, bertan ez baita jasotzen nola justifikatu behar den zertarako erabili den emandako diru laguntza.

Horren berri jasota, ondorengoek hitz egin dute:

Cantero jauna:

Aurka bozkatu behar dugu, beti pentsatu izan dugulako Eskoriatzako Udalarentzako tokia Euskadiko Udalen Elkarte delat, eta ez Udalbiltza. Eta, gainera, baita idazkariak egindako txostenagatik ere; arrazoi politiko eta juridikoengatik, aurka bozkatu dugu.

Merino jauna: Jose Luisek adierazitako bidetik, ez dugu uste Udalbiltza euskaldun guztion organoa denik, integrazio organoa denik, baizik eta alderantziz, uste dugu konfrontazio organoa dela. Uste dugu diru laguntza hori EUDELentzako izan beharko litzatekeela, eta ez Udalbiltzarentzat. Eta idazkariaren txostena ere kontuan hartzen dugu.

Hitz egiteko txanda amaitu ondoren bozketa egin da. Regidor andreak eta Cantero eta Merino jaunek aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek (6) alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDALBILTZA PARTZUERGOARI 6.000 euroko diru laguntza ematea "EUSKAL HERRI MAILAKO KOHESIO ETA GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA SUSTATZEKO EGITASMOA 2014" proiektua garatzeko.

Bigarrena.- Diru laguntza 0201.481.121.00.01 partidaren kargura ematen da, eta agintzen da proposatutako hitzarmena sinatzen denean berehala ordaintzeko laguntzaren % 100a.

Hirugarrena.- Proposatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkartzan sinatzeko ahalmena ematea Alkateari. Hitzarmen horretan arautzen dira erabaki honen bidez ematen den diru laguntzari lotutako baldintzak.

8.- KREDITUAK ALDATZEKO 16. ESPEDIENTEA: kreditu gehigarriak.

Kredituak aldatzeko 16. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 16. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapituluko laburpenaren arabera:

Sarreren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
0201.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina:Kreditu gehigarriak.		16.613,70
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA			16.613,70€

ANA ROSA IREGUI URRUTIA

OSANE CANDELARIO MACIAS

AITZOL OLIVIER MADINABEITIA PEREZ

Hauteskunde-araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan eta lege horrekin bat datozen gainerako arauetan ezarritakoa kontuan hartuz, egindako ukoen berri jaso du Udalbatzarrak, eta erabaki honen ziurtagiria hauteskunde-batzorde zentralari bidaltzeko agintzen du, jakinaraziz uko hauen ondoren ez dagoela ordezkio hautagai gehiagorik Agrupacion de Anteiglesias de Eskoriatza-Eskoriatzako Elizateen Elkarte (EEE-AAE) talde politikoaren zerrendan.

10.- LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA: KULTURA ETA KIROLETAKO LAGUNTZAILE LANPOSTU BERRIA SORTZEA.

Kultura eta kiroleko laguntzaile lanpostu berria sortzeko lanpostu zerrenda aldatzeko proposamena ikusi da.

Aldaketa hori Telesko Udal Telebista Fundazioa desagitearen ondorioz proposatzen da, izan ere, fundazioan ari den langilea udal plantillan sartzera derrigortuta dago Udala, eta baita Fundazioko lanpostu zerrendan zegoen lanpostua Udal honetako lanpostu zerrendan sartzera ere.

Aipatutako aldaketa premiaz egin behar da, Telesko Udal Telebista Fundazioa 2014ko abenduaren 31ko ondorioekin desagitea komeni baita, eta beraz, lanpostu zerrendaren aldaketaren onarpena ezin da hurrengo ekitaldiko aurrekontua onartu arte atzeratu.

Administrazio onaren printzipioak eskatzen du erakundea etengabe egokitu behar dela egon daitezkeen aldaketetara, ekonomia eta antolaketa errealitatea benetan islatuz.

Lanpostu zerrendaren aldaketak ezin du ordainketa osagarrien igoera orokorra ekarri, 2014rako Estatuko aurrekontu orokorren abenduaren 26ko 22/2013 Legeko 24. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Aldaketa proposamena langileen ordezkariekin aurrez negoziatu da, apirilaren 12ko 7/2007 Legeak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 34. artikuluan eta 37.c) artikuluan ezarritakoa aplikatuz, eta akordio bat lortu da.

Lanpostu zerrenda onartzea eta, ondorioz, baita bertan egindako aldaketak ere, Udalbatzarrari dagokio, Toki Araubidearen Oinarrizko arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.2.i) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskumen hori ezin da eskuordetu.

Aldaketa proposamenak udal aurrekontuarekin batera onartutako plantilla organikoa aldatzea dakar, eta beraz, udal aurrekontua onartzeko egin beharreko tramite berak egin behar dira horretarako ere, horrela eskatzen baitu Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartu zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuko 126.3 artikulua.

Udalbatzarrerako gai zerrendan sartu aurretik Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak aztertu behar du espedientea, horrela eskatzen baitute, besteak beste, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 20.1-c) artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 82. eta 126. artikuluek.

Eztabaidatu eta bototara jarrita, Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Plantilla organikoaren eta lanpostu zerrendaren aldaketa hasiera batean onartzea ondoren esango den moduan:

- KULTURA ETA KIROLETAKO LAGUNTZAILE lanpostua sortzen da, eta horren deskripzioa, funtzioak eta balorazioa espedientean jasotakoak izango dira.

Lanpostu hau Telesko Udal Telebista fundazio publikoko plantillako langilea fundazioa desegin ondoren bertara atxikitzeko sortu da.

BIGARRENA.- Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea 15 egun baliodunetz interesdunek aztertzeko aukera izan dezaten eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jartzeko Udalbatzarrari.

Erabakiak behin betiko onartutzat joko dira aipatutako epean ez bada erreklamaziorik jartzen; eta ondorio horietarako, Alkateak behin betikotzat joko du erabakia eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

Erreklamaziorik aurkeztuz gero, horiek onartzeko edo baztertzeko eta plantilla organikoaren eta lanpostu zerrendaren aldaketak behin betiko onartzeko proposamena egingo zaio Udalbatzarrari hilabeteko epean.

11.- KULTURA ETA KIROLETAKO LAGUNTZAILE LANPOSTUARI HIZKUNTZ ESKAKIZUNA IZENDATZEA.

Udal honetako Euskara zerbitzuak egindako txostenaren arabera, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Sailburuordetzak egindako txostenaren kaltetan gabe, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Kultura eta Kiroletako laguntzaile lanpostu berrirako hizkuntz eskakizuna onartzea Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 97.5 artikuluan eta Euskal Autonomia Elkarteke herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko 86/1996 Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoa betez.

HIZKUNTZ ESKAKIZUNA
3

DERRIGORTASUN DATA
2014/10/28

12.- TELESKO UDAL TELEBISTA FUNDAZIOA DESEGITEKO HASIERAKO ERABAKIA.

Telesko Udal Telebista Fundazioa desegiteko eta kitatzeko tramitatutako espedientea aztertu da.

Telesko Udal Telebista kable bidezko telebista zerbitzua emateko sortu zuen Udal honek.

Proposatzen den desegiteak zerbitzua eraginkorragoa izatea ekarriko du eta baita ere koordinazioa handiagoa izatea eta prozedura ekonomia hobetzea eta aurrekontuen iraunkortasun eta austeritate printzipioak hobeto aplikatzea; azken batean, Toki Ogasuneko baliabideen erabilpen hoberena egitea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2.f) eta 85.bis.2-a) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrari dagokio zerbitzuak kudeatzeko erak onartzea eta organismo autonomoak sortzea, aldatzea edo kentzea.

Organismo autonomoak kentzeko egin beharreko tramiteak organismo horiek sortzeko egindako berak dira, eta beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluan udal ordenantzetarako aurreikusitako prozedura jarraitu behar da.

1955eko ekainaren 17ko dekretuz onartutako Tokiko Udalbatzen Zerbitzuen Erregelamenduko 88.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, desegindako organismo autonomoaren eskubideak eta betebeharrak subrogatuko ditu Udalak.

Datorren ekitaldiko udal aurrekontuan dagozkion betebeharrak bere gain hartzeko behar besteko kredituak jaso beharko dira.

Batzorde informatzaile honek aztertu behar du espedientea, horrela eskatzen baitute, besteak beste, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 20.1-c) artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 82., 123. eta 126. artikuluek.

Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Merino jauna abstenituta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- “Telesko Udal Telebista Fundazioa” izeneko toki organismo autonomoaren desegitea onartzea hasiera batean. Desegiteak urte honetako abenduaren 31n izango du eragina.

BIGARRENA.- Udalak telebanaketa zerbitzua bere gain hartzea 2015eko urtarrilaren 1ean, kudeaketa zuzenaren modalitate pean eta Komunikazio zinegotzigoari atxikia.

HIRUGARRENA.- Udal hau Fundazioaren ondorengoa izango da, izaera orokorrarekin, erakunde autonomoa desegin ondoren kobratzeke edo ordaintzeke gelditutako eskubide eta betebeharrak subrogatuta.

LAUGARRENA.- Abenduaren 31n kobratzeke gelditutako eskubideak eta ordaintzeko gelditutako betebeharrak udal aurrekontura gehituko dira.

BOSGARRENA.- Telesko Udal Telebistaren izenean dauden banku-kontuak ixtea eta kontuetako saldoak Eskoriatzako Udalaren titularitateko kontu erabilgarrietara aldatzea.

SEIGARRENA.- Bere helburuak betetzeko eta zerbitzua behar bezala emateko Telesko Udal Telebistara atxikitako udal ondasun guztiak desatxikitat joko dira urtarrilaren 1ean, eta udal ondarera itzuliko dira. Halaber, udal ondarera itzuliko dira edozein titulu legitimorengatik eskuratutako ondasun guztiak eta baita desegiterakoan izan ditzakeen baliabide eta eskubideak ere.

ZAZPIGARRENA.- Udalaren gain hartzea desegite egunean indarrean dauden obra, zerbitzu eta hornidura kontratuetatik, hitzarmenetatik eta beste edozeinetatik eratorritako kontratuko eskubide eta betebeharrak guztiak.

ZORTZIGARRENA.- Telesko Udal Telebista Fundazioko plantillako langile bakarra udal plantillan eta lanpostu zerrendan sartuko da 2015eko urtarrilaren 1ean, Udal honetako Kultura arloa atxikita, betiere, bere egoera juridikoa eta lortutako eskubideak errespetatuz. Halaber, Eskoriatzako Udalak erabat subrogatuko ditu aipatutako Fundazioak langile horrekiko izandako lan eskubide eta betebeharrak, desegite erabaki honek ezingo dituelarik, inolaz ere, horiek aldatu.

Langile hori KULTURA ETA KIROLETAKO LAGUNTZAILE lanpostura berraxikia geldituko da, eta Telesko Udal Telebista Fundazioko TELESKOKO ARDURADUN lanpostua behin betiko desagertuko da.

Udal plantillan sartutako langilea balorazio ekonomiko baxuagoko Udal lanpostu batera berraxikitzen baldin bada, aldi baterako osagarri pertsonala jasoko du ordura arte jasotzen ari zen soldata osoaren eta Udal plantillan sartzan denetik dagokionaren arteko aldearengatik. Aldi baterako osagarri pertsonal horrek berriazko osagarrian izan daitezkeen soldata igoerak xurgatuko ditu erabat desagertu arte, eta horiek finkatuta gelditzeko inolako aukerarik gabe.

BEDERATZIGARRENA.- Eskoriatzako Udalak subrogatu egiten ditu gaur egun arte Telesko Udal Telebistan aitortuta zeuden datu fitxategien titularitatea, eta horrela jakinaraziko dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (DBEB), datuen titularrek datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuak ezerezteko eskubideak erabil ditzaten Eskoriatzako Udalaren aurrean.

HAMARGARRENA.- Ahalmena ematea Alkateari Udalak bere gain hartzen duen zerbitzura atxikitako giza baliabideak eta baliabide materialak eskualdatzeko beharrezko lanen koordinazioa zuzenean kudeatu ditzan, eta beharrezko gestioak egin ditzan Zerga Administrazioako Estatu Agentzian, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuan eta bidezkoak izan daitezkeen beste edozein erakundetan.

HAMAIKAGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau formalizatzeko behar beste dokumentu eta harpen-akta sinatzeko.

HAMABIGARRENA.- Hartutako erabakia jendaurrean jartzea, gutxienez 30 egun baliodunez, interesdunek erreklamazioak jarri edota iradokizunak egin ahal izateko, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean iragartzea hori.

HAMAHIRUGARRENA.- Aurkezten diren erreklamazioak eta iradokizunak Udaltzatarrak erabakiko ditu, eta berak erabakiko du ere organismo autonomoaren behin betiko desegitea.

Hala ere, erreklamaziorik aurkezten ez bada, ez da beharrezkoa izango erabaki berririk hartzea, eta ondorio horietarako, hori egiaztatuko duen ziurtagiria egingo du Idazkari Orokorrak.

13.- ARANA KALEKO 20-21 ZENBAKINETAKO ETA GAZTAÑADUI KALEKO 1-3-5-7-9-11 ZENBAKINETAKO ERAIKINEN ATZEALDEEN XEHETASUN-AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

2013ko apirilaren 29an hasiera batean onartu zen Jose Arana kaleko 20-21 zenbakietako eta Gaztañadui kaleko 1-3-5-7-9-11 zenbakietako eraikinen atzealdean xehetasun azterketa. Azterketa hori Anselmo Iñurritegui Altuna arkitekto jaunak egin zuen eta 2013/03/01ean bisatuta dago.

Xehetasun azterketa jendaurrean jarri zen hogeiei egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (90. zenbakia, 2013/05/14) eta BERRIA egunkarian 2013ko maiatzaren 8an iragarrita, eta ez da inolako alegaziorik jarri berorren aurka.

Hirigintzako Batzorde Informatiboak egindako proposamenarekin bat etorritz, Udaltzatarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- BEHIN BETIKO ONARTZEA Jose Arana kaleko 20-21 zenbakietako eta Gaztañadui kaleko 1-3-5-7-9-11 zenbakietako eraikinen atzealdean xehetasun azterketa. Azterketa hori Anselmo Iñurritegui Altuna arkitekto jaunak egin zuen, eta 2013/03/01ean bisatuta dago.

Bigarrena.- Behin betiko onarpen erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta zuzenean eragingo dien jabe eta interesatuei jakinaraztea.

14.- "EUSKADI LAGUNKOIA" PROIEKTUARI ATXIKITZEKO ERABAKIA.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ondorengo helburuekin sustatutako "Euskadi Lagunkoia" proiektuari atxikitzea.

- Herritarren parte-hartze prozesuak sortzea eta bultzatzea.
- Udal eskumenen arloetan aldaketak ahalbideratzea herritarren bizi kalitatea hobetzeko.
- Adineko pertsonak Euskadiko herri eta hirietako bizitzan ongizate-sortzaile gisa eskaintzeko dutena baliatzea.
- Ekimen lagunkoien sare bat sortzea Euskadin.

Osasunaren Mundu Erakundeak ezarritako metodologia eta lau fasetako zikloa (planifikazioa, inplementazioa, ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza) jarraituz.

15.- ESKORIATZAKO UDALAREN ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA HASIERA BATEAN ONARTZEA.

Komunikazio eta Parte-hartze batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertararitutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzako Udalaren administrazio elektronikoaren zenbait alderdi arautzen dituen udal ordenantza hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak jar diezaion. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, ordenantza behin betiko onartutzat joko

da erabaki berririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikulua.

Merino jaunak eskatuta, Alkateak gai zerrendako ordena aldatu du. 19:30ean Fagor Etxetresnak eta Edesa enpresen itxieragatik kaltetutakoak sartu dira aretora, eta beraiek aurkeztutako mozioa jarraian aztertzea erabaki da.

Regi andreak bilkura utzi du Fagorreko bazkide izan eta aztertu beharreko gaian interes zuzena duelako. Merino jaunak, bilkuran jarraitu arren, ez du parte hartzen ez eztabaidan ez bozketan, eta jakinarazi du horren arrazoia dela bera ere Fagorreko bazkide izatea.

16.- FAGOR ETXEKOTRESNEN ETA EDESAREN ITXIERARENGATIK KALTETUTAKO TALDEEN ESKARIZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Hitza emanda, langileen ordezkari batek luze eta zabal azaldu ditu berak ordezkatzeko dituen langileek mozioa aurkezteko eta joan zen larunbatean izandako manifestazioa bezalako ekintzak egiteko izan dituzten arrazoiak. Erreklamatzeko dituzten hiru gai nagusiak zeintzuk diren jakinarazi du (aurre-erretiro duinak, kapital sozialak itzultzea eta lanpostu finkoak mantentzea) eta euskaraz eta gazteleraz irakurri du mozioa, ondoren hitzez hitz transkribatzen dena:

Fagor Etxetresnen gainbeherak, porrotak eta ondorengo hartzekodunen konkurtsoak oso ondorio txarrak ekarri ditu Debagoiena osoarentzat, Aramaiorentzat, Basaurirentzat... Egoera honetako kristal zatiak konpontzea danon lana da, eta lan horrek kontzientzia hartzea eta horren arabera jokatzeko eskatzen du.

Ordezkatzen duten gizarteari hurbiltzen eta bere arazoak konpontzen saiatu behar dira erakunde publikoek. Udalak, gertueneko erakundeak diren heinean, sentikor izan behar dira euren herrietan izan daitekeen lanpostuen galeraren aurrean, nolabait behartutako erretiro lotsagarrien aurrean, iruzurra eginez euren jabeen itzuli gabeko kapital eta ekarpenen aurrean eta lanpostuak lagatzeko bazkideek duten eskubidea urratzearen aurrean.

Horregatik guztiagatik, zuen gogoetara jartzen dugu ondorengo mozioa:

1.- Eskoriatzako Udalak Mondragon Korporazioari honako hau eskatzen dio:

Lanpostua galdu duten pertsona guztiei behin betiko beste lanpostu bat eskaintzea. Ezgaitasun bat izateagatik, Gizarte Segurantzaren sartuta egoteagatik (Edesa), lana eta familia bateratzeagatik edo beste arrazoi batzuegatik eman daitekeen lan-bazterketak ekiditea.

Behar beste neurri hartzea, negoziazio zuzenaren ondoren, bazkide aktibo eta ez aktiboen zori zaien kapital sozialak, merkataritzako maileguak eta borondatezko ekarpenak itzultzeko.

Kooperatibisten aurre-erretiroak duin eta beste kooperatibetakoekiko baliokideak izatea.

Lanpostuak lagatzeari buruz adostutakoa betetzea. Erretiroa hartutako bazkidearekin hitzartutakoa betetzea, eta eskubide hori gauzatu ahal izateko ekarpena lagatzeko. Lanpostuak lagatzeko araua hitzez hitz bete beharko da.

2.- Bere leihoak ireki eta arazo guztiak konpontzeko kaltetu guztiakin elkarrizketa bidetik abiatu dadila eskatzea Mondragon Korporazioari. Elkarrizketa bidea gauzatu ahal izan dadin behar besteko bitartekari lanak egitea Udalak.

3.- Udal honi eskatutako proposamenak gauzatu ahal izateko, bere esku dauden baliabide guztiak erabili ditzala eskatzea Gipuzkoako Aldundiari.

4.- Erakunde publiko eta pribatuekin egindako gestioen eta lortutako emaitzen berri lehenbailehen guri ematea.

5.- Hartutako erabakia Mondragon Korporazioari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, eta gure taldearen eskarien eta mozio honen berri ematea herritarrei ohiko komunikabideetatik.

Hitz egiteko txanda irekita, Alkateak zein kaltetutako taldeen ordezkariak kooperatibismoari buruzko eta gaur egungo egoerara ekarri gaituzten arrazoiei buruzko bere iritzia eman dituzte luze-zabal (ez dira transkribitu, eta jasota gelditzen da CD batean grabatuta gelditzen direla).

Hitz egiteko aukera eman arren, publikoko inork ez du ezer adierazi.

Cantero jaunak esan du bat datorrela Alkateak eta kaltetutako taldeen ordezkariak esandako guztiarekin.

Eztabaida amaituta, bozkatu egin da, eta Alkateak aurrez horrela proposatuta, eztabaidan eta bozketan parte hartu duten 7 zinegotziek, aho batez, mozioa onartzea erabaki dute 5. puntuan ondorengo aldaketa eginda: "erabakia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasun Sailari ere bidaltzea".

17.- IRADOKIZUNEI BURUZKO ERABAKIA ETA TOPONIMIARI BURUZKO LANA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Alkateak egindako proposamenarekin bat, gaia aztertzeke gelditzen da udalbatzaren hurrengo bilkuran aztertzeke.

18.- ESKORIATZAKO UDALAREKIKO ZORREN GERORAKETA ETA ZATIKETAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA.

Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzako Udalarekiko zorren geroraketa eta zatiketak arautzeko udal ordenantza hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak jar diezaien. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, ordenantza behin betiko onartutzat joko da erabaki berririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak

aldatutako Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikulua.

18.- ALKATEAREN DEDIKAZIO PORTZENTAJEA ALDATZEA.

Udalbatzarrak ondorengo erabakia hartu zuen 2011ko irailaren 21ean:

Lehenengoa.- Beinat Herce Leceta jaunak % 80ko denbora partzialeko dedikazioa izatea bere karguan 2011ko urriaren 1etik aurrera.

Alkateak dedikazioa erregimen berria proposatu du eta horretarako arrazoiak azaldu ditu.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Beinat Herce Leceta jaunak %60ko denbora partzialeko dedikazioa izatea bere karguan 2014ko azaroaren 1etik aurrera.

19.- ZINEGOTZI KARGUAN ARITZEKO DEDIKAZIO PARTZIALA.

Alkate jaunak proposatuta, Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Jose Angel Petralanda Gil zinegotzi jauna lanaldiaren % 20ko dedikazioarekin aritzea bere karguan.

Bigarrena.- Lanaldi partzialeko dedikazioarengatik ondorengo ordainsari erregimena finkatzea: UDALHITZeko 25. mailari dagokion portzentajea.

Hirugarrena.- Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintzari azaroaren 1etik aurrera Petralanda jauna afiliatzeko eta alta emateko eskatzea, Udalak bere gain hartuz Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko arauak beraien zerbitzupeko langileei buruz enpresei ezartzen dizkien beharrak.

20.- KONSTITUZIO-AUZITEGIAK KATALUNIako KONTSULTA BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIARI BURUZKO MOZIOA.

Merino jaunak mozioaren xedapen zatia irakurri du, ondoren transkribatzen dena, eta esan du "Estatu eredua eta beste gauza batzuk erabakitzeko eskubidea" bezala aurkezten den mozioa dela, ez dela autodeterminazio eskubideari buruzko mozioa.

KONSTITUZIO-AUZITEGIAK KATALUNIako KONTSULTA BEHIN-BEHINEKOZ BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIARI BURUZKO MOZIOA

2014ko irailaren 19an, Kataluniako Parlamentuak irailaren 26ko Kataluniako 10/2014 Legea onartu zuen, aldeko 106 botoekin eta aurkako 28ekin. Berresteko ez diren herri-kontsultei eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege hori 2014ko irailaren 27an argitaratu zen Kataluniako Generalitataren Aldizkari Ofizialean.

Halaber, egun bereko aldizkariaren eranskin gisa argitaratu ziren Kataluniako Generalitateko presidentearen irailaren 26ko 129/2014 Dekretua (Kataluniaren etorkizun politikoari buruz berresteko ez den kontsulta deitezkoa) eta horren eranskinak.

2014ko irailaren 29an, Mariano Rajoyren gobernuak erabaki zuen konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua aurkeztea Konstituzio Auzitegian, eskatzeko legea eta dekretua behin-behinekoz bertan behera utz zitzaten.

Irailaren 29an bertan, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen bi arau-testuak behin-behinekoz bertan behera uztea.

Horregatik guztiagatik, Eskoriatzako Udaleko Osoko Bilkurak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

1.- Eskoriatzako Udalak defendatzen du herriek eta pertsonak beren etorkizuna demokratikoki erabakitzeko askatasuna dutela, berriki Eskozian ikusi den moduan. Izan ere, Eskoriatzako Udalaren ustez, etorkizuna ezin da inposizioekin eraiki, oinarri demokratikoen eta herriek eta pertsonak adierazitako borondate askearen gainean eraiki behar da: erkidegoaren eta Estatuaren arteko harremana erabakitzeko izan, monarkiaren eta errepublikaren arteko Estatuaren beraren definizioa erabakitzeko izan edo bestelako gai ekonomiko, sozial edo ingurumenekoak erabakitzeko izan.

2.- Eskoriatzako Udala ez dago inola ere ados Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsoarekin eta Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiarekin, katalanek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidearen aurkakoak baitira.

3.- Eskoriatzako Udalak eskatzen dio Konstituzio Auzitegiari bi xedapen horiek behin-behinekoz bertan behera uzteko erabakian atzera egiteko eta aukera emateko katalanei 2014ko azaroaren 9an askatasunez adierazteko beren iritzia.

4.- Eskoriatzako Udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitatari bidaliko dio.

Eskoriatzan, 2014ko urriaren 6an.

Ondoren, honako hauek hitz egin dute:

Cantero jauna: sozialistok moziorearen aurka gaude arrazoi honegatik: (hitzez hitz transkribatzen da irakurri duen testua).

▣ *Tener la mayoría no es el único requisito para que una decisión tenga el marchamo de democrática. Hay otros, como que la decisión se produzca en el ámbito de las competencias establecidas.*

▣ *Las aspiraciones ideológicas no son derechos fundamentales indiscutibles. En un sistema democrático uno no puede decidir todo lo que le apetezca. No puedes decidir saltarte un stop o no pagar impuestos.*

2014/10/28

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario

▣ Existe un problema político en Cataluña, claro que sí. Claro que hay que darle una respuesta, claro que hay una parte de ciudadanos, también en Euskadi, que no están conformes con el marco de relación con el conjunto de España. Pero **ese problema no lo solucionamos forzando las normas**, saltándolas o jugando con las palabras para confundir.

▣ Si uno quiere un referéndum sobre la independencia, **no puede ni debe refugiarse en una ley de consultas autonómica** prevista para aquello sobre lo que sí pueden pronunciarse los ciudadanos catalanes, como si fuera igual consultar sobre lo legal o lo ilegal.

▣ Lo verdaderamente cuestionable es que a la ciudadanía catalana se le ha vendido el supuesto derecho a ser consultado a votar sobre su futuro como algo inocuo y natural, sin **explicarle con claridad las consecuencias** que eso entraña para su vida.

▣ Hablemos claro. El llamado derecho a decidir, cuando lo invocan los nacionalistas, es para lo que es, **para decidir la independencia**.

▣ Un referéndum a “sí o no” es un mal método para determinar el futuro de una sociedad si no hay un **consenso previo**, y mucho menos lo es para medir cuál es realmente la opinión consciente e informada de la ciudadanía sobre un asunto tan complejo como la ruptura o el mantenimiento de relaciones tejidas durante siglos y generaciones entre una comunidad y el conjunto del Estado al que pertenece.

▣ Estamos hablando de lazos afectivos, de historias, de esfuerzos compartidos. Pero también de economía, de nivel de vida, de pensiones, de moneda, de pertenencia a la Unión Europea, de muchas cosas de las que se ha debatido con **transparencia en Escocia y que se están omitiendo en Cataluña**.

▣ El proyecto del Partido Socialista para Euskadi no pasa por el derecho a decidir, sino por seguir viviendo, decidiendo y progresando juntos. Pasa por perfeccionar, profundizar el marco y mejorar el marco de convivencia que acordamos hace 35 años con **la Constitución y el Estatuto**, perfeccionándolo hacía fuera y, también mejorándolo y haciéndolo mucho más eficiente hacía dentro.

▣ Se dice que no hay nada más democrático que votar, que votar igual a democracia. ¿Qué hay de malo en preguntar, no? Pero cuando lo que se pretende consultar afecta a una decisión colectiva, es imprescindible que las **reglas sean claras y neutrales**, no pueden ser parciales.

▣ Hay que tener claro qué y para qué se vota, y para qué se pregunta, cómo y quién pregunta y en qué condiciones se vota. Todas esas cuestiones hay que tenerlas muy claras. La democracia no es mejor o más auténtica por consultar cuestiones genéricas.

▣ La política tiene el deber de **buscar los acuerdos**, los acuerdos entre diferentes y éstos son los que tienen que ser sometidos a referendo.

Nosotros apostamos por la convivencia, por el blindaje de las competencias, la profundización en el autogobierno, el blindaje de los derechos sociales que ahora mismo están laminados por una mayoría absoluta del Partido Popular. Y también para mejorar el pacto territorial en España. Eso es lo que proponemos, **un acuerdo de convivencia**. Ésa es la propuesta del Partido Socialista.

Por todos estos motivos, los socialistas estamos en contra de todos los puntos de la moción.

Alkate jauna: Cantero jaunari zuzenduta galdetu dio zer gertatu zen Estatutarekin, eta honako hau gaineratu du: badirudi ez duela ezer balio. Bi milioi pertsonak bere herriaren etorkizuna libre erabakitzeke eskubidea eskatzen dute hizkuntza bat, kultura bat eta herri sentimendu bat dutelako. Uste dut beste gauza batzuetarako azkar ibili bada Konstituzioa aldatzeko, honetarako ere ibili zitekeela.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da. Cantero jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek (8) alde, mozioa onartu da.

22.- GALDE-ESKEAK.

Merino jaunak ESKOHITZA informazio eskuorria egiteak izan duen kostuari buruzko informazioa eskatu du.

Bertan dagoen inork ez du datu hori, eta Ezpeleta jaunak hartu du datu hori emateko konpromisoa.

Merino jauna kexu da ere gainerako udal taldeek ez dutelako udal taldearen baliabide berak zerbait argitaratzeko, esan du webgunean ezin dutela ezer argitaratu, baliabide guztiak udal taldearen zerbitzura daudela.

Eta beste gairik ez dagoenez, 20:45ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en fechas 27/05/2014 y 24/06/2014.

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 23 de octubre de 2014 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de las Resoluciones de Alcaldía por las que se aprueban los expedientes de modificación de créditos N° 13, N° 14 y N° 15.

3.- RATIFICACIÓN DE LA INCLUSIÓN DE ASUNTOS DENTRO DEL ORDEN DEL DÍA DE LA CONVOCATORIA.

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión de los siguientes asuntos dentro del orden del día:

- Toma de conocimiento de renuncia de concejales electos.
- Aprobación inicial de la Ordenanza reguladora de diversos aspectos de la Administración Electrónica en el Ayuntamiento de Eskoriatza.
- Modificación del porcentaje de dedicación del alcalde.
- Ejercicio de cargo de concejal con dedicación parcial.

4.- ORDENANZAS FISCALES 2015. Aprobación inicial.

El alcalde hace un breve resumen del contenido de la propuesta que en relación a las ordenanzas fiscales 2015 se eleva desde la Comisión de Hacienda.

Enterados todos los presentes, se producen las siguientes intervenciones:

Sr.Merino: Tras manifestar que no les parece correcto desde el punto de vista medioambiental que no se revierta al usuario la subida que tendrá que soportar el ayuntamiento por el incremento aplicado por el Consorcio de Aguas, porque, dice, que eso es como decir al vecino "abre el grifo que nosotros pagamos", hace la siguiente intervención: *" Desde Ezker Anitza-IU de Eskoriatza queremos recordar que nuestra bandera nunca ha sido apuntarnos a la carrera de a ver quien baja más los impuestos o quien los congela atendiendo a criterios electoralistas sino que nuestro mensaje siempre ha sido y es que los impuestos deben garantizar la suficiencia de un sector público bien gestionado para poder realizar políticas activas y favorecer la transformación social sin recortar ni reducir la calidad de los servicios públicos. Si bien el año pasado IU votó a favor de la congelación, se debió a la crisis que venimos arrastrando desde 2008 y principalmente por un hecho extraordinario de gran impacto tanto social como económico que afectó de lleno a nuestro pueblo y en consecuencia a las y los ciudadanos Eskoriatzarras, que fue la quiebra de Fagor Electrodomesticos de la cual no se sabía que consecuencias iba a tener en las familias, esa fue la razón. Para el ejercicio 2015, creemos que no debemos caer en populismos y sí garantizar los servicios públicos que los ciudadanos y ciudadanas demandamos en nuestro pueblo, con lo cual se debiera aplicar una*

2014/10/28

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario

subida razonable a la situación económica actual de la ciudadanía, y siempre, siempre garantizando bonificaciones y exenciones a las familias y ciudadanos que no puedan hacer frente a las obligaciones fiscales municipales. “

Sr. Cantero: Me voy a abstener. Creo que es una propuesta razonable y equilibrada, pero hay una partida que nos hace inclinarnos por la abstención, es la del agua. El incremento que para el agua se propone consideramos que es excesiva para las necesidades de los eskoriatzarras, y teniendo en cuenta además que afecta a uno de los sectores económicamente más débiles. No vamos a entrar con valoraciones relativas a si estas ordenanzas son más o menos electoralistas, supongo que lo puedan ser en un año preelectoral.

Terminado el debate se procede a votar. Con el voto en contra del Sr. Merino , la abstención del Sr. Cantero y de la Sra. Regidor y el voto favorable del resto de los corporativos asistentes (6), el Pleno ACUERDA:

Primero: Aprobar inicialmente la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda en relación a las ordenanzas para 2015. (se incluye en el Anexo I)

Segundo: Someter a información pública por el plazo de 30 días hábiles los acuerdos adoptados a efectos de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse.

